

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2418

450/2021 EBAZPENA, apirilaren 8koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen den txanda irekiko eranskinean sartuta dauden estatutupeko langile finko izendatzeko prozesua, Medikua kategorian, destinoa Osakidetzako Lehen Mailako Arretako Pediatriako Unitateetan izanik.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bidez, Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2016an eta 2017an deitutako hautaketa prozesuen oinarri orokorrak onartu ziren (2018ko otsailaren 8ko 28. zk. EHAAn argitaratu ziren).

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 7ko 110/2018 Ebazpenaren bitartez, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Mediku kategorian estatutupeko lotura lortzeko hautaketa-prozesuaren oinarri espezifikoa onartu ziren, kategoria horretako destinoak Osakidetzako Lehen Mailako Arretako Pediatriako Unitateetan izanik (2018ko otsailaren 15eko EHAA 33. zk.).

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 3ko 95/2020 Ebazpenaren bidez, txanda irekian bidez hautatutako hautagaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena argitaratu ziren, Mediku kategorian, destinoa Osakidetzako Lehen Mailako Arretako Pediatriako Unitateetan izanik (Osakidetzaren web-orrian argitaratu zen, 2020ko otsailaren 6an).

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 3ko 96/2020 Ebazpenaren bidez, eranskinean jasota dauden txanda irekiko esleipendunak estatutupeko langile finko izendatzen dira, Mediku kategorian, destinoa Osakidetzako Lehen Mailako Arretako Pediatriako Unitateetan izanik (2020ko otsailaren 17ko EHAA 32. zk.).

Lanpostuaz jabetzeko ezarritako epea amaituta, txanda irekiko izangaiari oinarri orokorretako 16.7 oinarrian aurreikusitakoaren arabera destinoak eskainiko zaizkie.

Oinarri orokorretan xedatutakoa aplikatu beharko zaio destinoen esleipen- eta hautapen-prozesu honi; betiere, txanda irekian parte hartzen dutenen artean eta lortutako puntuazio-hurrenkeraren arabera eginez esleipena.

Ezin izango zaie atal honetan eskainitako destinorik esleitu, baldintzak bete arren destino guztiak ez aukeratzeagatik aurreko fasean destinorik lortu ez dutenei.

Azaldutako guztiaren ondorioz, eta pertsonalaren arloan indarreko legeriak egozten dizkidan eskumenez baliatuz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Eranskinean jasotako izangaiak, Mediku kategorian, txanda ireki bidez, estatutupeko langile finko izendatzen direla EHAAn argitara dadin agintzea, destinoa Osakidetzako Lehen Mailako Arretako Pediatriako Unitateetan izanik.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute destinoaz jabetzeko, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusian (Egoitza Zentralean) hartu beharko da destinoaren jabetza; horretarako, hautagaiak hitzordua eskatu beharko du lehenbizi, eta ekitaldian dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

– NANA, pasaportearen edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetakoz nazionalentzat.

Parte hartzeko eskubidea izanik Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen dien dokumentua aurkeztu behar dute, eta, beste Estatu bateko nazionalitatea duen norbaitekiko ahaidetasun-lotura izan edo haren kontura biziz gero, lotura hori dutela egiaztatzen duten dokumentuak ere bai. Era berean, ezkontidearen zinpeko deklarazio bat edo hitzemate bat aurkeztu behar dute beste ezkontidearengandik zuzenbidez bananduta ez dagoela adierazteko eta, hala badagokio, hautagaia haren kontura edo kargura dagoela adierazteko.

– Elkargoko kide izatearen egiaztatzea, deialdiko oinarri espezifikotan hala eskatzen denean.

– Diziplina-espeditze bidez hautagaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako ezgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzematea.

Espainiako nazionalitatea ez duten hautagaiek, Espainiako Estatuari buruzko deklarazioaz gain, zinpeko deklarazioa edo hitzematea aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikoetarako desgaituta edo antzeko egoera batean, eta orobat haien Estatuan, baldintza beretan, funtzio publikora sartzeari eragozteko moduko diziplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoaren egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetzako Prebentzio Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa; eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetzan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaraten ez direnak, edo, agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatu-tupeko pertsonal gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesatuei jakinarazten zaie lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokien epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dituztela hautaprobei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkien eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, dagokion izangaia lanpostuaz jabetzen bada, beharrezko eginkizunak bete eta hurrengo egunean hasiko da lanean, osasun-zerbitzuaren barruan esleitu zaien erakundearen.

2021eko apirilaren 29a, osteguna

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea egongo da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 8a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2021eko apirilaren 29a, osteguna

I. ERANSKINA

2016-2017ko OSAKIDETZAKO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA

DESTINOEN ESLEIPENA

KATEGORIA: FAKULTATIBO ESPEZIALISTA PEDIATRIA MEDIKUA (LMT)

TXANDA: IREKIA

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleितua	Derrigorrezko data	
***0316**	Gomez Camara, Oihana	Bidasoko ESI-a, Irun erdialdea, arratsaldez, goizeko agenda irekita eta ospitalean guardiak izanik	2HE	
***6857**	Perez Ocon, Amaya	Uribeko ESI-a, Las Arenas (OZ), arratsaldez	2HE	
***0613**	Aguirresarobe Gil de San Vicente, Garazi	Arabako ESI-a, Salburua (OZ), arratsaldez	2HE	